

## Barrualdea Eskualdea

Dokumentu hau egiteko, 1986-2009 aldiko minbiziaren erregistroko datuak eta "EAEko minbiziaren herriz herriko atlas, 2003-2008" argitalpeneko emaitzak erabili dira. Helburua da azaltzea eskualdeko populazioan minbiziak zer-nolako bilakaera izan duen azken bi hamarkadatan eta, bide batez, udalerrietako informazioa nabarmentzea.

Adinaren arabera estandarizatutako (Europako populazio estandarrekin) eskualdeko tasen bilakaera modu grafikoan azaltzen da Erkidego Autonomoarekin batera; estimazioa egiteko JoinPoint log linealaren erregresio ereduak erabili dira. Denboran zeharreko bilakaerarekin batera, probabilitateen mapa ere erakusten da, bertan azalduz eskualdeko udalerriek daukaten arrisku-probabilitate handiago edo txikiagoa EAEko batez bestekoarekin alderatuta. Azkenik, kutxa-diagramek erakusten dute arriskua nola banatzen den Bizkaiko eskualdeetako udalerrietan, EAEkoarekiko.



### Emaitza aipagarrien laburpena

#### Kokapen guztiak (♂/♀)

Intzidentzia tasetan goranzko joera mantentzen da; urtero %1,12 gizonengan eta %1,74 emakumeengan hazten dira. Eskualdeko herrietako arrisku probabilitateak EAEkoak baino txikiagoak ohi dira (mapa).

#### Buru eta lepoa (♂)

Tasak beherazko joeraz, urtero %0,65ko jaitsieraz dabil-tza. Eskualdean arrisku probabilitate handiagoko herriak: Basauri eta Etxebarri.

#### Kolon-ondeste (♂/♀)

Goranzko joera erakusten dute tasek, urteko hazkuntza gizonena %2,82 eta emakumeena %2,25 da. Herrien probabilitate arriskuak EAEkoen azpitik diraute.

#### Birika (♂/♀)

Gizonezkoen tasak beherazko joera apala agertzen duten bitartean, emakumeena azken urteetan gora egin du, dena dela tasa oso txikiez. EAEko arrisku probabilitatearen pare edo azpitik agertzen dira herriz-herriko datuak.

#### Larruazaleko melanoma (♀)

Tasek goranzko joeran urteko %2,69ko hazkuntzaz dabil-tza. Probabilitate arriskuan, eskualdeko herriek EAEn parean daude.

#### Bularra (Mama) (♀)

Eskualdean intzidentzia tasa doituak urtero %2,07ko hazkunde du. Gernika soilik agertzen da EAEko probabilitate arrisku baino handiagoz.

#### Prostata (♂)

Tasen hazkuntza %4an kokatzen da eskualdean. Eskualdean, orokorrean, EAEko arrisku mailaren azpitik daude.

#### Gernubideak eta maskuria (♂)

Tasek joera aldakorrek azaltzen dute; EAEkoen tasen azpitik dabil-tza. Etxebarri agertzen da eskualdean arrisku probabilitate handituaz.

#### Tiroidea (♀)

Tasak %6 handitu dira urtez urte eskualdean, alabaina ez da azaltzen 2006tik aurrera EAEn eman den gorakada. Probabilitate arriskuak EAEn pareko edo azpitik daude (mapa).

2  
0  
1  
3

**HARREMANA:**  
Epidemiologia Unitatea  
Osasun Publikoko Lurralde Ordezkaritza.  
Bizkaia.  
Recalde Zumardia, 39A  
4808 Bilbo



## GIZONAK

	Intzidentzia tasen tendentzia, <i>JoinPoint</i> , 100,000 biztanleko Adinarekiko doituak (erreferentzi populazioa: Europa)	Arriskua EAEn baino handiagoa izateko probabilitatea
<b>Kokapen guztiak (CIE-10: C00-C99, ez C44)</b>		
<b>Burua eta Lepoa (CIE-10: C00-C14)</b>		
<b>Kolon-ondeste (CIE-10: C18-C20)</b>		
<b>Birika (CIE-10: C33-C34)</b>		
<b>Prostata (CIE-10: C61)</b>		
<b>Gernubide eta maskuria (CIE-10: C65-C68)</b>		
	<p>— BARRUALDEA — EAE</p>	<p> <span style="color: green;">■</span> &lt; 0.10              <span style="color: lightgreen;">■</span> 0.10 - 0.20              <span style="border: 1px solid black; display: inline-block; width: 10px; height: 10px;"></span> 0.20 - 0.80  <span style="color: purple;">■</span> 0.80 - 0.90              <span style="color: darkpurple;">■</span> &gt;= 0.90         </p>

## EMAKUMEAK

	Intzidentzia tasen tendentzia, <i>JoinPoint</i> , 100,000 biztanleko Adinarekiko doituak (erreferentzi populazioa: Europa)	Arriskua EAEn baino handiagoa izateko probabilitatea
<b>Kokapen guztiak (CIE-10: C00-C99, ez C44)</b>		
<b>Kolon-ondeste (CIE-10: C18-C20)</b>		
<b>Birika (CIE-10: C33-C34)</b>		
<b>Larruzaleko melanoma (CIE-10: C43)</b>		
<b>Mama (CIE-10: C50)</b>		
<b>Tiroidea (CIE-10: C73)</b>		
	<p>— Barrualdea    — EAE</p>	<p> <span style="display: inline-block; width: 10px; height: 10px; background-color: black; margin-right: 5px;"></span> &lt; 0.10    <span style="display: inline-block; width: 10px; height: 10px; background-color: green; margin-right: 5px;"></span> 0.10 - 0.20    <span style="display: inline-block; width: 10px; height: 10px; border: 1px solid black; margin-right: 5px;"></span> 0.20 - 0.80  <span style="display: inline-block; width: 10px; height: 10px; background-color: purple; margin-right: 5px;"></span> 0.80 - 0.90    <span style="display: inline-block; width: 10px; height: 10px; background-color: darkred; margin-right: 5px;"></span> &gt;= 0.90 </p>

Eskualdetako Intzidentzi Arrazoi Estandarizatu leundua

